DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Etxegintza
Vivienda

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTU BEHAR DUENA, DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN JABETZAKO HIGIEZINETAKO GORAGAILUEN MANTENTZE ETA KONTSERBAZIO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Prozedura honen objektua da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen **Karatularen** (aurrerantzean Karatula) **1. puntuan** adierazten diren zerbitzuak egingo dituen kontratista hautatzea.

Zerbitzu horiek Agiri honen arabera, Preskripzio Teknikoen Agiriaren arabera eta kontratistaren proposamenaren arabera egingo dira.

Kontratua zatitan modu independentean egitea aurreikusiz gero —hura sortetan banatuta—, **Karatularen 1. puntuan** adierazten da kontratua zein sorta zehatzetan banatzen den; hala badagokio, lizitatzaile berak zenbat sortatan aurkez dezakeen eskaintza; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari zenbat sorta adjudika dakizkiokeen; eskaintza integratzaileak aurkezteko aukera eta irismena; eta kasuak kasu zein alderdi zehazten diren.

Kontratu honen CPV kodea **Karatularen 1. puntuan** adierazten da.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa da (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea).

Kontratazio Organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazten da eta, hala badagokio, eta ezar daitekeen zuzenbide pribatuko arauei jarraituz, egokitzat jotzen dituen pertsonak izenda ditzake berariaz, kontratuarekin lotutako jarduera jakin batzuk egikaritzeko.

3. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez adjudikatuko zaio lizitatzaileari, horrek kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza aurkezten badu, betiere agiri honetan ezarritako adjudikazio irizpideen arabera (aurrerantzean, eskaintzarik onena).

4. ALDAERAK

Lizitatzailek aldaerak aurkezteko aukera jakitera ematen da, hala dagokionean, **Karatularen 3. puntuan**.

Aldaerak onartzen badira, **Karatularen 3. puntuan** adierazten dira haien gutxieneko baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak, baita haiek kontratuaren objektuarekin duten lotura ere.

5. KONTRATU DOKUMENTAZIOA

Adjudikazioaren ondoren formalizatuko den kontratuaz gain, honako dokumentu hauek izango dute kontratu izaera:

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

- Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta horren karatulak.

- Preskripzio Teknikoen Agiriak.

- Adjudikaziodunak aurkezten duen eskaintzak.

- **Karatularen 4. puntuan** adierazten den beste edozein dokumentuk.

Adjudikaziodunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan, guztiak onartzen dituenaren froga gisa.

6. KONTRATUAREN IRAUPEN EPEA

Karatularen 5. puntuan adierazten da kontratuak zer iraupen epe izango duen.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **Karatularen 6.1 puntuan** adierazten da.

Bestalde, kontratuaren prezioa ere **Karatularen 6.1 puntuan** zehazten da.

Kontratuaren prezio horrek bilduko ditu kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren kostu guztiak; besteak beste —informazio gisa soilik eta ez modu mugatzailean—, honako hauek:

- Kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko aldez aurretik azken prezioan barne hartu beharko liratekeen kontzeptuen ondoriozko fakturaziorik.

- Kontratuak berezkoak dituen kontzeptu guztiei dagozkienak eta hura egikaritzeko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, eta abar), baita zergak (BEZik gabe), aseguruak, lizentziak, garraio eta joan-etorrien gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

- Kontratua egikaritzeko kontratistak erabili behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.

- Erakunde kontratatzaileak zehazten dituen lan edo informazio bilera guztietara bertaratzea, kontratua behar bezala garatu eta bete ahal izateko.

- **Karatularen 6.1 puntuan** zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **Karatularen 6.2 puntuan** adierazitakoa da, 9/2017 Legearen 101. artikuluan ezarritako ondorioetarako —9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL)—.

Balio zenbatetsi hori kalkulatzeko SPKLren 101. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

Aurreikuspen horrek ez du konpromiso jakin bat sortzen erakunde kontratatzailearentzat.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratuaren prezioa hilero ordainduko da, enpresa kontratistak dagokion faktura aurkeztu eta gero.

Hau izango da kontratistari hilero ordaindu beharreko zenbatekoa:

- Mantentze integralagatik: kontratistak eskaintzan adierazitako urteko zenbatekoa zati 12 zatitzearen emaitzazko zenbatekoa.
- Beste lan batzuengatik, egindako esku hartze bakoitzagatik fakturatuko da, oinarri hartuta eskaintzan adierazitako mantentze lanetako teknikariaren orduko prezioa eta materialen publikoarentzako salmenta prezioaren gaineko deskontua.

Kontratistak hileko faktura zehatza jaulki beharko du, eta, zerbitzuei dagokien hila amaitu, eta hamabost egun naturaleko epean egin beharko du.

Erakunde kontratatzaileak hileko zenbateko hori 30 egun naturaleko epean ordainduko du, zerbitzuei dagokien hila amaitzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta faktura adierazitako epean eman bada eta erakunde kontratatzailearen oniritzia badu.

Ez da ordainduko agiri honen kontratu objektutik kanpo egindako lanik edo zerbitzurik, edo, hala badagokio, erakunde kontratatzaileak aldez aurretik eskatu ez duen lanik edo zerbitzurik.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen 8. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen profilean argitaratuko dira:

- Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.
- Kontratuaren adjudikazioaren iragarkia.

- Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

- SPKLren 63. artikuluan adierazitako gainerako informazioa.

Erakunde kontratatzailearen profilera web orri honen bidez sartu ahal izango da: http://www.contratacion.euskadi.eus

Era berean, lizitazioaren deialdiaren iragarkia eta kontratuaren formalizazioaren iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Horrez gain, Kontratazio Organoak Agiri honen 30. Klausularen arabera adostutako kontratuaren aldaketa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, SPKLren 207.3 artikuluan adierazitako terminoetan.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko berme bat eratu beharko du **Karatularen 9. puntuan** adierazitako zenbatekoaz.

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak egiaztatu beharko du adierazitako behin betiko bermea eratu izatea 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoak ondorio horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Behin betiko bermea horrek SPKLren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die.

Bermea eratu ahal izango da SPKLren 108. artikuluan jasotako moduetako batean; eta ez da beharrezkoa izango hura Gordailuen Kutxa Orokorrean eratzea.

Abal moduan ezarriz gero, Agiri honi **I. eranskin** gisa gehitutako ereduaren araberakoa egingo da.

Bermea eratu izana bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Bermearen gainean kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak egikaritzen badira, enpresa kontratistak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek egikaritu eta hamabost egun naturaleko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea berregokitu egin beharko du, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Kontratistak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea egokitzeko, aldaketaren erabakia jakinarazten den datatik aurrera.

Bermea SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebehar guztiak bete dituenean.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratatzaileak aldeko txostena eman beharko du aurretiaz.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko inolako debekurik ez duten eta kaudimena egiaztatzen duten pertsona naturalek edo juridikoek, espainiarrek edo atzerrikoek, kontratatu ahal izango dute erakunde kontratatzailearekin.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren objektu diren zerbitzuak egiteko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa gaikuntza eduki beharko dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren adjudikaziodun izateko aukera izango dute, baldin eta, kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, objektu edo jarduera esparrukoak direnean, haien estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko gaitasuna edukiko dute, nolanahi ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez-espainolek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuetakoek, betiere dagokien estatuko legeriaren arabera, kasuan kasu zerbitzua egiteko gaituta badaude. Kasu horretan, SPKLren 67. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

Espresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan-kasuan zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Espainiak nazioarteko hitzarmenen ondorioz dituen betebeharrak alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu ez duten estatuetakoak pertsona fisikoek edo juridikoek txosten bidez egiaztatu beharko dute, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela, era berean, Espainiako enpresek kontratazioan parte hartu ahal izatea SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko erakundea parekagarriekin, funtsean antzekoa izango den moduan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak landuko du, eta aurkezten den dokumentazioari erantsiko zaio.

Ez da beharrezkoa izango Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten Estatuetako enpresekiko elkarrekikotasunari buruzko txostena.

Erakunde kontratatzailearekin kontratuak egin ditzakete xede horrekin aldi baterako sortzen diren enpresaburu elkarteek, eta ez dute eskritura publikorik formalizatu beharko kontratuaren adjudikazioa bere alde lortu arte. Edonola ere, SPKLren 69. artikuluan jasotakoari jarraituko zaio.

Lizitatzaileek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte **Karatularen 10. puntuan** ezarritako kaudimen ekonomikoari eta finantzarioari edo kaudimen profesional eta teknikoari dagokienez.
Hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako giza bitartekoak eta/edo bitarteko materialak, gutxienik, atxikiko dira kontratua egikaritzeko.

Horrez gain, lizitatzaileek bete beharko dituzte **Karatularen 10. puntuan**, hala badagokio, adierazten diren baldintza espezifikoak.

Lizitatzaileei eskatuz gero kontratua egikaritzeko zenbait giza bitarteko eta/edo bitarteko material

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

atxikitzeko konpromisoa, konpromiso hori kontratuko funtsezko betebeharra izango da SPKLren 211.f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Hortaz, betebehar hori ez betetzeak berekin ekarriko du kontratua suntsiaraztea, erakunde kontratatzailearen borondatez.

Kontratua ez suntsiarazteko hautabide gisa, kontratistak bere kabuz aldatuko balu kontratua egikaritzeko atxikitako pertsona (bere langilea izan edo azpikontratatutako enpresa bateko langilea izan), erakunde kontratatzaileak konprometituta dagoen pertsona berehala atxikitzea eskatu ahal izango du, edota, hautabidez, nahiz enpresa kontratistarekin zerikusirik ez duen ezintasunagatik, pertsona hori prestakuntza eta esperientzia bereko beste giza bitarteko batzuekin ordeztea eskatu ahal izango du. Pertsona horrek erakunde kontratatzailearen berariazko adostasuna izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo bitartekoak atxikitzeko betebeharra egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu ahal izango dira lizitatzaileak —haiekin dituzten lotura juridikoak edozein izanik ere—; baldin eta frogatzen bada kontratuaren indarraldi osoan kaudimen hori eta/edo bitarteko horiek benetan daudela eta lizitatzaileek jotzen duteneko erakundeak kontratatzeko debekurik ez badu.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa duten lizitatzaileek hala adierazi beharko dute 1. gutun azalean sartu beharreko erantzukizunpeko deklarazioan (zehazki Europako Kontratazio Agiri Bakarraren II. zatiko C sailean).

Halaber, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak asmoa badu beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritzeko, frogatu beharko du beharrezko bitarteko guztiak izango dituela. Horretarako, erakunde horien idatzizko konpromiso bat aurkeztuko du (**II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera landua).

Konpromiso hori notarioaren aurrean sinatuta aurkeztu beharko du/dute eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak jotzen dueneko/ditueneko erakundeak/erakundeek, eskatutako kaudimena eta/edo bitartekoak atxikitzeko eskatutako konpromisoa egiaztatzeko. Adieraziko du/dute eskaintzaileak parte hartu behar duen lizitazioaren baldintzak beren hedadura osoan ezagutzen dituela/dituztela eta horren ziurtagiri bat aurkeztuko du/dute (17. klausulan jasotako moduan). Gainera, lizitatzaile horren esku, adjudikaziodun gertatuz gero, kontratua egikaritzeko behar diren bitarteko guztiak jartzeko borondate atzeraezina agertu behar du/dute (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta; erakunde kontratatzaileak berariaz baimendu behar du haiek ordezkatzea edo aldatzea). Idatzi hori aurkeztearen ondorioa izango da erakunde kontratatzaileak konpromiso hori onartzen duela, baldin eta lizitatzailea adjudikaziodun suertatzen bada.

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak 10 egun balioduneko epean aurkeztuko du konpromiso hori, Kontratazio Organoak ondorio horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak —klausula honetan jasotakoak— bete egin beharko dira eskaintzak aurkezten diren azken datan eta iraun beharko dute kontratua egikaritzeko unean.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri egongo dira lizitazio iragarkia argitaratzeko egunetik eta erakunde kontratatzailearen profilean proposamenak aurkezteko epe osoan.

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria bitarteko ez elektronikoen bidez eskuragarri jarriz gero, **Karatularen 11.1 puntuan** adieraziko da.

13.2. AURKEZTEKO BIDEAK

Proposamenak bide elektronikoen bitartez aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzen arabera; salbu eta xedapen gehigarri horren 3. atalean ezarritako inguruabarretako bat egokitzen bada eta **Karatularen 11.1 puntuan** hala adierazten bada.

Proposamenak bide elektronikotik aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, dataren baliozkotzea eta zifratzea barne direla, Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikoko aplikazioaren web orrian adierazten dira: http://www.contratacion.euskadi.eus**.**

Bide elektronikoen bidez, bi fase hauetan bidali ahal izango dira eskaintzak: lehenik, eskaintzaren marka elektronikoa transmititzen da —berori jasoz gero, eskaintza aurkeztutzat joko da ondorio guztietarako— eta, ondoren, eskaintza bera transmititzen da 24 orduko gehieneko epean. Bigarren bidalketa hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratutzat joko da.

Eskaintzaren marka elektronikotzat datu multzo bat ulertzen da. Horiek sortzeko prozesuak ziurtatu egiten du datuak zalantzarik gabe lotuta daudela eskaintzaren beraren edukiarekin. Gainera, datu horiek aukera ematen dute eskaintzan izan litezkeen aldaketak antzemateko eta, horrela, horien osotasuna ziurtatzeko. Espedienteari gehitu beharreko dokumentuen kopia elektronikoek bete egingo dute administrazio prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen legeriak horretarako ezarritakoa, eta legeria horretan jasotako ondorioak izango dituzte.

Karatularen 11.1 puntuan jasota egonez gero proposamenak bide ez elektronikoen bidez aurkezteko aukera, lizitatzaileek eskuz edo posta bidez, karatularen 11.1 puntuan adierazitako epean, lekuan eta ordutegian, bi gutun azal itxi aurkeztuko dituzte (ondoren adieraziko da zein dokumentazio barne hartu behar duten). Gutun azaletan adieraziko da zein kontrataziora aurkezten den eta bakoitzak dagokion zenbakia eramango du (1. gutun azala, 2. gutun azala edo 3. gutun azala, dagokionaren arabera). Gainera, datu hauek ere jarriko dira: enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein izaeraz sinatzen duen, telefono zenbakiak eta posta elektronikoko helbidea. Hori guztia modu irakurterrazean adieraziko dute.
Proposamenak bide ez elektronikoen bidez bidaltzeko **Karatularen 11.1 puntuan** jasotako ordutegi muga ez da ezarriko haiek postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan aurkez daitezke; betiere, ondoren datorren atalean adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitatzaileak proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio erakunde kontratatzaileari data bereko telex, fax (zenbaki honetara: 943 32 79 20) edo presako telegrama bidez egun berean. Proposamena bidali izana posta elektronikoaren bidez ere adierazi ahal izango da (helbide honetara: etxegintza@donostia.eus). Posta elektronikoaren bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da argi jasota egotea bai bidali izana, bai jaso izana, bai datak eta bai komunikazioen eduki osoa ere. Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratu beharko da, gero espedienteari eransteko. Baldintza horiek betetzen ez badira edo bidali izanaren jakinarazpena proposamenak hartzeko ezarritako epea eta ordua igaro ondoren iristen bada, dokumentazioa ez da onartuko. Dena den, adierazitako egunaren ondorengo 10 egun naturalak igaro ondoren proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.

13.3. GUTUN AZALEN EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak Agiri honetara eta bere Karatulara, Preskripzio Teknikoen Agirira eta kontratuko gainerako dokumentaziora egokituko dira; eta haiek aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea haien klausulen osotasuna, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gutun azal edo fitxategi elektroniko bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

Kontuan hartu gabe gutun azal fisikoak diren (proposamenak bitarteko ez elektronikoen bidez aurkezten direnean erabiltzen dira) edo fitxategi elektronikoak diren (proposamenak bide elektronikoen bidez aurkezten direnean erabiltzen dira), berdin izendatuko dira honela: 1. gutun azala, 2. gutun azala eta 3. gutun azala.

Lizitatzaileak sinatutako gutun azal edo fitxategi elektroniko bakoitzean alderdi hauek jasoaraziko dira:

Lehiaketaren izena eta, hala badagokio, lizitatzaileak eskaintza aurkezten duen sortaren edo sorten izena;
Lizitatzailearen izena eta ordezkatzen duen pertsona;

Harremanetarako telefono zenbakia.

1. gutun azala. "AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

1. gutun azalak hau adieraziko du:
(kontratuaren izena)
1. gutun azala. Aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa
Lizitatzailea:

Lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko deklarazio egokituko da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formulariora. Berori **III. eranskin** gisa gehitu da eta jarraian adierazten denaren arabera beteko da:

   - Europako Kontratazio Agiri Bakarra betetzeko, erregelamendu honen I. Eranskinean bildutako jarraibideak bete beharko dira: 2016/7 Betearazpen Erregelamendua (EB), 2016ko

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

urtarrilaren 5ekoa, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioa ezartzen duena.

- Europako Kontratazio Agiri Bakarreko "IV. saila: Hautatzeko irizpideak" atal zehatzari dagokionez, lizitatzaileek soilik A atala bete behar dute: "Hautatzeko irizpide guztiei dagokien adierazpen globala".

- Lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenera eta/edo bitartekoetara jotzen badu (Agiri honen 12. klausularen arabera), erakunde horiek guztiek, halaber, erantzukizunpeko deklarazio bat aurkeztu beharko dute. Horretan jasoko da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren II. zatiko A sailean ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B sailean ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa"), eta III. zatian eskatzen den informazioa.

- Zenbait enpresaburu aldi baterako elkartean aurkezten diren kasu guztietan, parte hartzen duen enpresa bakoitzaren erantzukizunpeko deklarazioa ekarriko da. Horretan agertuko da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren II.etik V.era arteko zatietan eskatzen den informazioa.

2. **Karatularen 10. puntuaren** arabera, kontratua egikaritzeko gutxieneko giza bitarteko eta/edo bitarteko material jakin batzuk atxikitzea eskatzen bada, lizitatzaileek kontratua egikaritzeko gutxieneko giza bitarteko eta/edo bitarteko material horiek atxikitzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, Agiri honi **IV. eranskin** gisa txertatutako ereduaren arabera.

3. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek elkartea eratzen edo eratuko dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Adjudikaziodun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak modu solidarioan behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahalordedun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua azkendu artean. Dena dela, ahalorde mankomunatuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

4. Atzerriko enpresek berariazko aitorpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten diotela adieraziko dute.

5. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honen **V. eranskineko** ereduaren arabera.

OHARRA:

Erakunde kontratatzaileak lizitatzaileei eskatu ahal izango die ziurtagiri guztiak edo horien zati bat aurkez dezaten; kontuan hartuz gero arrazoizko zalantzak daudela 1. puntuan adierazitako deklarazioaren indarraldiari edo fidagarritasunari dagokionez, edota hori beharrezkoa denean prozedura egoki garatzeko.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Aurrekoa gorabehera, enpresaburua inskribatuta badago Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu base nazional batean, enpresako espediente birtualtzat, dokumentuen biltegiratze elektronikoko sistematzat edo aurrekalifikazioko sistematzat, eta horiek organoentzat doan eskuragarriak direnean, ez du betebeharrik izango ziurtagiriak nahiz beste dokumentu frogarik aurkezteko, aipatutako lekuetan inskribatuta dauden datuei dagokienez.

2. gutun azala. "BALIO IRITZI BATEN MENDEKO KUANTIFIKAZIOA DUTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

2. gutun azalak hau adieraziko du:
(kontratuaren izena)
2. gutun azala: Balio iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideei buruzko dokumentazioa
Lizitatzailea:

Lizitatzaileek **Karatularen 11.2 puntuan** adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun azal honetan.

Lizitatzaileak kontu berezia izan beharko du gutun azal honetan gehitu beharreko dokumentazioa prestatzeko garaian; izan ere, edukiari dagokionez, emandako jarraibideetara egokitu beharko baitu. Orobat, ezin izango da formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioaren alderdiak jakitera eman ahal izango duen erreferentziarik egin.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak ezetsi eta prozeduratik baztertuko dira.

Erakunde kontratatzaileak, era berean, eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Kontratistak kontratua egikaritzeko atxikitako pertsonak —bere langileak izan edo enpresa azpikontratatu bateko langileak izan— bere kabuz aldatzen baditu, kontratua egikaritzeko atxiki beharreko giza bitartekoak baloratu ahal izango dira **Karatularen 12. puntuaren** arabera; hala gertatuz gero, erakunde kontratatzaileak hitzemanda dagoen pertsona berehala atxikitzea eskatu ahal izango du, edota, hautabidez, nahiz enpresa kontratistarekin zerikusirik ez duen ezintasunagatik, pertsona hori prestakuntza eta esperientzia bereko beste giza bitarteko batzuekin ordeztea. Pertsona horiek erakunde kontratatzailearen berariazko adostasuna izan beharko dute.

3. gutun azala: "FORMULAK ERABILITA EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

3. gutun azalak hau adieraziko du:
(kontratuaren izena)
3. gutun azala: Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa
Lizitatzailea:

Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkezteko, Agiri honi **VI. eranskin** gisa atxikitako eredura egokitu beharko dute lizitatzaileek.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Erakunde kontratatzaileak, adjudikazioa egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, 1., 2. eta 3. gutun azaletan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna ziurtatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo egoeretan faltsutasunik aurkitzen bada, horrek kontratua baliogabetzea ekar dezake, kontratistari egozteko moduko ez betetzeagatik.

14. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Adjudikazio irizpideak, dagokien haztapenaz adierazita, izango dira **Karatularen 12. puntuan** jasotakoak.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio Organoak ebaluazio batzorde baten laguntza izango du. **Karatularen 13. puntuan** adierazten dira batzorde horren kideak.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak aurretiaz kalifikatuko du 1. gutun azalean jasotako dokumentazioa (“Aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa”). Berori garaiz eta eraz aurkeztuko da. Aurkeztutako dokumentazioan topatuko balitu konpon daitezkeen akatsak, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari haiek zuzentzeko.

Jarraian irekiko da 2. gutun azala (“Balio iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideei buruzko dokumentazioa”), bertan jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratzeko asmoz.

Kuantifikatzeko balio iritzia behar duten irizpideei formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino haztapen handiagoa emanez gero, kuantifikatzeko balio iritzia behar duten irizpideak baloratzea **Karatularen 14. puntuan** adierazitako kideek osatutako batzorde bati egokituko zaio.

2. gutun azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren irekiko da 3. gutun azala (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”).

3. gutun azala (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) ireki aurretik, “Balio iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideei buruzko dokumentazioaren” balorazioaren emaitza jakinaraziko zaie lizitatzaileei.

Hori egin ondoren irekiko da 3. gutun azalean (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) jasotako dokumentazioa, berori aztertu eta baloratzeko asmoz.

Edonola ere, egintza publikoan irekiko dira 2. gutun azala (“Balio iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideei buruzko dokumentazioa”) eta 3. gutun azala (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”); salbu eta, **Karatularen 11.1 puntuaren** arabera, proposamenak aurkezteko bide elektronikoak erabiltzen badira.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Aipatutako 2. gutun azala ("Balio iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideei buruzko dokumentazioa") eta 3. gutun azala ("Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") egintza publikoan irekitzen badira, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie 2. gutun azala ("Balio iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideei buruzko dokumentazioa") eta 3. gutun azala ("Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") zein data, ordu eta lekutan irekiko diren. Erakunde kontratatzailearen profilean argitaratuko inguruabar horiek, 48 ordu lehenago gutxienez.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan jasotako arrazoietakoren batean sartuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztutako proposamenen zerrenda Kontratazio Organoari helaraziko dio, beheranzko hurrenkeran sailkatuta —**Karatularen 12. puntuan** ezarritako adjudikazio irizpideak kontuan hartuz—, eta eskaintzarik onena identifikatuko du.

Lizitatzaile jakin bat baztertzea erabakiz gero, erakunde kontratatzaileak berariaz emango dio bazterketaren berri baztertutako lizitatzaileari.

Proposamena egin aurretik, bidezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxuegitzat hartzen bada, **Karatularen 12. puntuan**, hala badagokio, adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak SPKLren 149. artikuluan jasotako prozedurari jarraituko dio lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Adjudikazio proposamenak ez du inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatzailearen alde erakunde kontratatzailearen aurrean. Nolanahi ere, Kontratazio Organoak kontratua egindako proposamenari jarraiki adjudikatzen ez badu, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

17. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Adjudikaziorako lizitatzailea aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.
Ebaluazio Batzordeak egindako proposamena Kontratazio Organoak onartu ondoren, erakunde kontratatzaileak errekerimendua egingo dio proposamen onena egin duen lizitatzaileari hamar egun baliodunen barruan, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita, honako dokumentazio hau aurkez dezan:

1. Eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko datan, honako betekizun hauek betetzearen ziurtagiriak: erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak eta Agiri honen 12. klausulan eskatutako gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ez izateari buruzko baldintza guztiak, jarraian adierazten den eran.

   Aldi baterako elkarte batean sartuta parte hartu nahi duten enpresaburuek proposamena aurkeztuz gero, aipatutako dokumentazioak elkartea osatu behar duten enpresa guztiena izan behar du.

   (i) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasunari eta jarduteko gaitasunari buruzko ziurtagiriak:

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera agiria, estatutuak edo sorrera egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (agiri horietan zehaztuko dira haien jarduerari buruzko arauak). Agiri guztiak dagokien erregistro publikoan behar den bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridikoaren izaeraren arabera dagokionean.

- Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan-kasuan Estatuko legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo zinpeko aitorpen edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.

- Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo erakundeekiko kontratazioetan parte hartzea.

  Ez da beharrezkoa izango Merkataritzako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten Estatuetako enpresekiko elkarrekikotasunari buruzko txostena.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen kasuan, nortasun agiria nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.

- Ordezkari gisa aurkezten diren pertsonek, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, baita horretarako behar adinako ahalordea ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, (i) atal honetan aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela jasoko duen erantzukizunpeko deklarazio sinatua aurkeztu beharko du.

(ii) Kaudimen ekonomikoari eta finantzarioari eta kaudimen tekniko edo profesionalari buruzko ziurtagiriak, agiri honen 12. klausulan eskatutakoak.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa. Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio bolumena honela egiaztatuko da:

  - Merkataritza Erregistroan gordailututako eta onartutako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan izena emanda balego; bestela, izena emanda egon behar dueneko erregistro ofizialean gordailututakoak. Merkataritza Erregistroan izena eman ez duten banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legalizatutako bere inbentario liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute urteroko negozio bolumena.

  - Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko deklarazioa, haren negozio bolumena adierazita.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Hala dagokionean, eskatutako kaudimena egiaztatuko da azken hiru urteetan egindako zerbitzuen edo lanen zerrenda baten bidez. Zerrenda horretan agertuko dira horniduren zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua. Egindako zerbitzu edo lan horiek organo eskudunak luzatu edo ontzat emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean edo, hartzailea subjektu pribatua bada, horrek luzatutako ziurtagiri baten bitartez, edo, ziurtagiririk ezean, lizitatzailearen deklarazioaren bidez, erantsirik horren esku dauden dokumentuak, prestazioa egin izana ziurtatuko dutenak.

  Kontratista enpresa sortu berria denean (halakotzat hartuta bost urtetik beherako antzinatasuna duena), haren kaudimen teknikoa bide batetik edo gehiagotik egiaztatuko da —SPKLren 90.1 artikuluko b)-tik i)-ra bitarteko letretan daude jasota horiek, baina ez da inola ere aplikatzekoa izango artikulu horren a) letran ezarritakoa zerbitzu kopuru jakin bat egikaritzeari buruzkoa—.

- Sailkapena. Hala badagokio, sailkapena eskumena duen organoak luzatutako ziurtapenaren bidez egiaztatuko da, eta, horrekin batera, enpresak sailkapena indarrean dagoela ziurtatzen duen eta ziurtapenean barne hartutako inguruabarrak aldatu ez direla ziurtatzen duen enpresaren erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko da. Adjudikaziodun suertatuz gero, berriro egingo da deklarazio hori kontratua formalizatzen duen dokumentuan.

  Ziurtapenak egiaztatu behar du lizitatzailea zehaztutako taldean eta azpitaldeen sailkatuta dagoela, aipatutako kategoria berean edo goragokoan.

  Ziurtapen horrek egiaztatu ahal izango ditu, halaber, klausula honen 1. (i) atalean adierazitako inguruabarrak, hau da, lizitatzailearen eta, hala badagokio, bere ordezkariaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna.

(iii) Lizitatzailea SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetan erori ez dela egiaztatzen duen testigantza judiziala edo administrazio ziurtapena.

Eskumeneko agintaritzak agiri hori luzatu ezin badu, administrazio agintaritza, notario publiko edo elkargo profesional kualifikatu baten aurrean emandako erantzukizunpeko

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

deklarazio bat aurkez daiteke.

(iv) **Karatularen 10. puntuan**, hala badagokio, zehazten diren baldintzak betetzearen ziurtagiriak.

2. Dagokionean, enpresak kontratua egikaritzeko hitzemandako giza bitartekoak eta bitarteko materialak benetan izatearen egiaztagiriak.

(i) Hala badagokio, kontratua egikaritzeko hitzemandako giza bitartekoei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua egikaritzeko atxikitako talde osoaren izen identifikazioa, curriculum vitaeari dagozkion fitxekin batera. Horietan egiaztatuko da ezarritako baldintzak betetzen direla:

  1. Titulazio akademiko ofiziala.

  2. Dagokion esparruko esperientzia.

  3. Hala badagokio, erakunde kontratatzaileak eskatzen dituen beste edozein alderdi.

- Adierazitako giza bitarteko guztiak benetan erabilgarri izatearen egiaztagiria.

Datu pertsonalak babesteren arloan aplikatzekoa den araudian jasotakoaren arabera, eta giza bitartekoei buruzko dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honako hau jasoarazten da: (i) informazio hori bildu eta erabiltzeak berekin ekarriko du datu pertsonalak tratatzea lizitatzailearen aldetik, tratamenduaren erantzule gisa; eta (ii) informazioa erakunde kontratatzaileari entregatzeak, klausula honetan jasotakoa betetzeko, berekin ekarriko du lizitatzaile horrek datuak jakinaraztea, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzaileak bete egin beharko ditu datua babestearen arloan aplikatzekoa den araudian xedatutakoaren ondorioz hari dagozkion betebeharrak, aurreko paragrafoan aipatutako datuak tratatu eta lagatzeari dagokionez. Zehazki, eta bestelako betebeharrei kalterik egin gabe, tratamenduaren arduradun den heinean aukeratutako lizitatzaileak lortu beharko du, bere ardura esklusiboan, interesatuen oniritzi informatua datu horiek jakinarazi ahal izateko. Alderdi hori erakunde kontratatzailearen aurrean egiaztatu beharko du, eskaera egiten zaion guztietan.

(ii) Hala badagokio, kontratua egikaritzeko hitzemandako bitarteko materialei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua egikaritzeari atxikitako bitarteko materialen identifikazioa, ezarritako eskakizunak betetzearen egiaztagiriekin batera.

- Adierazitako bitarteko material guztiak benetan erabilgarri izatearen egiaztagiria.

Erakunde kontratatzaileak eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

3. Agiri honen 11. klausulan jasotako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario akta aurkeztuko da, lizitatzaileak, eskatzen den kaudimena duela eta/edo kontratuari giza bitartekoak atxikitzeko konpromisoa duela egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu, **II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartearen lege sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen arduraduna edo ahalordeduna izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua azkendu bitartean eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko.

Erakunde kontratatzaileak eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan topatuko balitu konpon daitezkeen akatsak, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea emango ahal izango dio lizitatzaileari haiek zuzentzeko.

Egokiro beteko ez balitz adierazitako epean dokumentua aurkezteko eskakizuna edota aurkeztutako dokumentazioak akats edo ez egite konponezinak balitu, ulertuko da lizitatzaileak eskaintza kendu duela, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3 (BEZik gabe) eskatuko zaio zigor gisa. Halakoetan, hurrengo lizitatzailearen dokumentua jasoko da, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan adjudikatuko du kontratua; gehienez ere bi hilabeteko epea edukiko du, proposamenak irekitzen diren egunetik hasita.

Kontratazio Organoak ebazpen arrazoitu batean jasoko du adjudikazio erabakia, eta hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko die, jakinarazpenak jasotzeko haiek adierazitako lehentasunezko bitartekoaren bidez. Erabaki hori erakunde kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Dokumentu hori zehatz-mehatz egokituko da lizitazioaren baldintzetara. Kontratua formalizatzen duen dokumentuan ezin izango dira inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea ekarriko duten klausulak.

Adjudikaziodunak, halere, kontratua eskritura publiko bilakatu dadin eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Formalizazioa ezin izango da formalizatu lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehenago.

Kontratuaren formalizazioa argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez hamabost egun naturaleko epean, kontratua burutu ondoren, erakunde kontratatzailearen profilean. Horrez gain, formalizazioaren iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta,

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

horretarako, kontratazio organoak kontratua formalizatu eta gehienez ere 10 egunetara bidaliko du iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera.

Adjudikaziodunari egoztekoak zaizkion kausengatik, ez balitz kontratua formalizatu adierazitako epearen barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio, zigor gisa. Zenbateko hori ordainduko da, lehenik, behin betiko bermearen kontra, SPKLren 71. artikuluko 2) atalaren b) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe. Halakoetan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran, agiri honen 17. klausulan eskatutako dokumentazioa eskatu ahal izango die. Lizitatzaileak hamar egun balioduneko epea izango du dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izendatuko du. Arduradunaren lana izango da kontratua egikaritzen den gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua zuzen eskaintzen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren jarraibideak ematea eta erabakiak hartzea, erakunde kontratatzaileak esleitzen dizkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridiko bat izan daiteke, erakunde kontratatzailearen barrukoa zein kanpokoa.

Kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. KONTRATUA EGIKARITZEA

Kontratua honako baldintza hauen arabera egikarituko da:

- Kontratistak kontratua egikarituko du horren termino eta baldintzen arabera, betiere Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan eta horren Karatulan xedatutakoari jarraituz eta Preskripzio Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzetan jasotakoari jarraituz. Gainera, erakunde kontratatzaileak, haren interpretazioan, kontratistari ematen dizkion jarraibideak kontuan hartuko dira.

- Kontratua lotuta dago indarrean dauden legezko, araubidezko eta konbentziozko xedapenak betetzera, aplikatzekoak direnean lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean.

  Testuinguru horretan, “Balio iritzi baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideei buruzko dokumentazioa” jasotzen duen 2. gutun azalean, lizitatzaileek, adjudikaziodun suertatuz gero, adieraziko dute kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei zein hitzarmen kolektibo izango zaien aplikatzekoa —bere langileei edo azpikontratatutako enpresako langileei— .>Kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei kontratistak aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa adjudikazio erabakian eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Halaber, kontratua adjudikatu eta gero langileei egiazki aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatu zaion informazio guztia eman beharko du kontratistak.

Kontratistak, kontratuaren egikaritze osoan zehar, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektorialaren eta langilearen kategoriaren araberako ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatutako ordainsaria ezin da, inolaz ere, langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

Atal honetan xedatutakoak egikaritzeko baldintza bereziaren eta funtsezko betebeharraren izaera izango du SPKLren 211.f) artikuluan jasotako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

- Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz egikarituko da.

- Erakunde kontratatzaileak kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar bezala egikaritzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegira dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

  Xede horrekin, erakunde kontratatzaileak egokitzat jotzen dituen kanpoko laguntzak jasoko ditu, kontratu betebeharrak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskapena egiteko, baita lanak kalitate maila egokiarekin egiten direla egiaztatzeko ere.

  Enpresa kontratistak erakunde kontratatzaileak zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

  Kontratistak ez du oztoporik jarriko erakunde kontratatzaileak egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

  Dena dela ere, erakunde kontratatzaileak edozein motatako ez betetze edo eragozpen antzemango balu, horren berri zuzenean emango zaio kontratuaren arduradunari, hari baitagozkio, azken batean, zerbitzuak egiten dituzten langileak antolatu eta gainbegiratzeko edo, hala badagokio, zehatzeko eskumenak.

- Langile guztiak kontratistaren mendekoak dira. Kontratistarenak dira bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio erakunde kontratatzaileari erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

  Kontratista izango da arduradun bakarra kontratua egikaritzeko ardura duten langileekin —langile propioekin edo noizean behin azpikontratatzen direnekin— lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratatzaileak ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua egikaritzearen ondorioz gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

- Kontratista nahitaez bete beharko ditu, hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 15. puntuan** adierazten diren baldintzak.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

21. KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira kontratuko funtsezko betebeharrak:

- Kontratuaren betebehar nagusia bere klausuletan, eta agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian, ezarritakora hertsiki lotuta betetzea.

- Indarrean dauden legezko, araubidezko eta konbentziozko xedapenak betetzea, aplikatzekoak direnean lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean; Agiri honen 20. klausulako bigarren marran jasotako baldintzetan. Testuinguru horretan, kontratistak, kontratuaren egikaritze osoan zehar, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren eta langilearen kategoriaren araberako ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatutako ordainsaria ezin da inolaz ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

- Kontratistaren eskaintzan hitzemandako giza bitartekoak —bere langileak izan edo azpikontratatutako enpresako langileak izan— eta/edo bitarteko material guztiak kontratuari atxikitzea.

- Jarduera egiteko behar diren lizentzia eta baimen guztiak bere kontura lortzea.

- Zerbitzuak egitea unean-unean aplikatzekoa den araudi sektorialean xedatutakoari jarraituz. Ondorio horietarako, bai kontratistak, bai kontratistaren langileek ziurtagiri guztiak izango dituzte —une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako betebehar guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko, hala badagokio—.

- Behin betiko bermeari eustea eta hura berritzea.

- Kontratua egikaritzen den bitartean, Agiri honen 25. klausulan kontratistari eskatzen zaizkion berezko estaldurak eta aseguruak kontratatuta edukitzea.

- Kontratua egikaritzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien kalte-galera guztiak ordaintzea.

- Kontratua behar bezala garatu eta betetzeko erakunde kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak egitea (hala nola, lan edo informazio bileretara joatea), ordainketa gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.

- Greba kasuan, zerbitzuak beteko dira. Zerbitzuak bermatuko ez balira, erakunde kontratatzaileak ahalmena du zerbitzu horiek egiteko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko; kasu horretan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien zenbatekoa.

  Grebak irauten duen bitartean, benetan egindako zerbitzuei dagokien prezioa bakarrik ordainduko da.

- Langileak ordezkatzea, baldin eta dagokien lana behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak egitean ardura nahikoa ez badute edo

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Gehienez hogeita lau orduko epea izango da, erakunde kontratatzaileak xede horretarako egiten duen errekerimendutik. Langileak ordezkatzean, erakunde kontratatzaileak ez du erantzukizunik hartzen bere gain, enpresa kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

Langileek, lanean hasi aurretik, bidezko baimena duela egiaztatu beharko dute.

- Langileak ordezkatzea gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarrengatik izaten diren bajak estaltzeko; kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez eta jarraitutasunez egingo direla ziurtatuta. Gehienez ere hogeita lau orduko epean egin beharko dira ordezkapenak.

- Datuak babestearen arloan aintzat hartu beharreko betebeharrak betetzea eta horiek betetzen direla behar bezala egiaztatzea, Agiri honetan, Karatulan eta/edo arlo honetan aplikatzekoa den legerian aurreikusten denaren arabera.

- Hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 16. puntuan** adierazten diren betebeharrak.

Klausula honetan eta **Karatularen 16. puntuan** barne hartutako betebeharrek kontratuko funtsezko betebeharren izaera izango dute SPKLren 211. f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, erakunde kontratatzaileak nahi badu.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak bete egin beharko ditu 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudian ezarritakoari jarraituz harentzat ondorioztatzen diren betebeharrak, pertsona fisikoen babesari dagokionez eta datu pertsonalen tratamenduarekin eta horien zirkulazio askearekin lotuta (aurrerantzean, DBEO). Bete egingo ditu, baita ere, datuak babesteari buruzko beste edozein arautan ezarritakoa, kontratuaren indarraldian, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta erabakiz tratatzen dituen datuak direla-eta, tratamendu horren arduradun gisa.

Betebehar hori ezartzen da alde batera utzi gabe, hala badagokio, **Karatularen 17. puntuan** berariaz ezarritakoa erakunde kontratatzaileak datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO BETEBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen inguruan indarrean dagoen legerian eta SPKLn jasotako xedapenetan jasotakoa alde batera utzi gabe —adjudikazioaren publizitateari eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari dagokienez—, erakunde kontratatzaileak ezin izango du lizitatzaileek emandako informazioa, baldin eta horiek hura konfidentzialtzat adierazi badute euren eskaintza aurkezteko garaian. Konfidentzialtasunak eragina du, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziotan —lizita prozedura honetan nahiz ondorengo batzuetan—.

Kontratistak, bere aldetik, kontratua egikaritzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan edo kontratuan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Konfidentzialtasun betebehar horri **Karatularen 18. puntuan** adierazitako epeaz eutsi behar zaio.

24. ERANTZUKIZUNA

Kontratistak izango du egiten dituen lanen eta prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua egikaritzean egiten dituen omisioek, akatsek edo metodo desegokiek erakunde kontratatzaileari edo hirugarren batzuei eragin diezazkieketen ondorioen gaineko erantzukizuna ere.

Kontratistaren betebeharra da kontratua egikaritzeko eragiketen ondorioz hirugarrenen gainean eragin daitezkeen kalte eta galerengatik kalte-ordainak ordaintzea.

25. ASEGURUAK

Kontratistak bere kontura kontratatuko ditu, kontratuaren iraupen epe osorako, **Karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak, bertan finkatutako termino eta baldintzetan.

26. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera, Kontratistak bide baimenduetatik eta bere kostura lortu beharko ditu honako lizentzia eta eskubide hauek: Agiri honen objektu diren zerbitzuak egiteko atxiki, jarri eta/edo mantendu beharreko tresneria informatikoen (hardwarearen eta softwarearen) gaineko eta edonolako tresneria eta/edo bitarteko osagarrien gaineko erabilerako eta/edo ustiapeneko lizentzia eta eskubideak.

Era berean, kontratazio honetan aplikatu beharko da SPKLren 308.1. artikuluan xedatutakoa. Hala izanik, kontratuaren objektu diren zerbitzuak —osotasunean edo faseetako edozeinetan— egitearen emaitzaren jabetza erakunde kontratatzailearena izango da soil-soilik. Hori guztia, kontratistari egoki dakizkiokeen egile eskubide moralak baztertu gabe eta/edo asmatzaile gisa aitortzearen eskubidea baztertu gabe, betiere Jabetza Intelektualaren Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo patenteei buruzko uztailaren 24ko 24/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Izan ere, erakunde kontratatzaileak behar bezala hartu beharko ditu aintzat kontratistaren eskubide horiek.

Horrenbestez, eta, hala badagokio, **Karatularen 19. puntuan** ezartzen dena bazter utzi gabe, kontratistak kontratuaren objektu diren zerbitzuen emaitzaren erabilera baketsua ziurtatu beharko dio erakunde kontratatzaileari. Emaitza horren parte den edozein elementuren gaineko lizentziak eta eskubideak legez eta iturri baimenduetatik lortu beharko ditu kontratistak, eta, emateko unean, aditzera eman beharko du emaitza horren gainean ez dagoela kontratazio honen indarrez erakunde kontratatzaileari dagozkion eskubideak urratuko duen inolako konpromisorik edo kargarik.

Edonola ere, kontratista izango da kanpoko hirugarren batzuek arlo hauekin lotuta plantea ditzaketen jabetza intelektualari eta/edo industrialari buruzko erreklamazioen arduraduna:

- Zerbitzuak egitean, jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideen bidez babestuta dauden

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

materialak, erremintak eta gainerako tresnak erabiltzearekin.

- Kontratazio honen objektu diren zerbitzuen emaitza eta/edo emaitza horren parte den edozein elementurekin.

Aurreko guztiari jarraituta, kontratistak kalte-ordainak eman beharko dizkio erakunde kontratatzaileari, baldin eta kontzeptu horien inguruko erreklamazioen ondorioz erakunde kontratatzailearentzat kalte-galerak sortzen badira.

Aurreko guztiaren ondoriozko zenbatekoen ordainketa Agiri honen 7. Klausulan ezarritako kontratuaren prezioan barnean hartuko da.

27. ZIGORRAK

a) Berandutzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratista, berari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik, agiri honetan eta/edo karatulan finkatutako epeetako edozein betetzean berandutuz gero, erakunde kontratatzaileak aukera izango du, nahierara, kontratua deuseztatzeko —agiri honen 33. klausulako baldintzetan— edo hura egikaritzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen alde sortuko dira **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-ordain eta kalte-galera guztiez gainera.

Kontratista berandutuz gero, ez da erakunde kontratatzailearen aurretiazko ohartarazpenik beharko.

b) Kontratatutako prestazioak akatsez egikaritzearen edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, kontratatutako prestazioak akatsez egikaritzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratatzaileak kontratua deuseztatzea erabaki dezake, agiri honetako 33. klausulan adierazitako baldintzen arabera, edota kontratuak egikaritzen jarraitzea erabaki dezake. Azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen alde sortuko dira **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-ordain eta kalte-galera guztiez gainera.

Zigorrak ordaintzeko, enpresa kontratistari ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kopuruak kenduko zaizkio, edo bermetik kenduko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean. Kasu horretan, dagokion erreklamazioa jarriko da eratutako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

Nolanahi ere, kontratua deuseztatu zein jarraitu erabaki, erakunde kontratatzaileak egokitzat jotzen duen denboran bere bitarteko propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez kontratuarekin jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerak eta klausula honetan jasotako ondorioak alde batera utzi gabe.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

28. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluan jasota dauden kontratistaren ondorengoa hautatzeko kasuak alde batera utzita, kontratua subjektiboki alda daiteke kontratu lagapenaren bidez soilik, klausula honetan ezarritako mugen barruan, eta aukera hori berariaz jasota baldin badago **Karatularen 22. puntuan**.

Lagapenak bete egin beharko ditu SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan ezarritako baldintzak; hots:

a) Kontratazio Organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako baldintzetan. Baimen eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren baimena emantzat ulertu beharko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez egikarituta izan behar du, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitako baldintzetan.

c) Lagapen hartzaileak administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, eskatzekoa zaion kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa edo profesionala izan behar ditu; gainera, ez du kontratatzeko inolako debekurik izan behar, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitako baldintzetan.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitako baldintzetan.

Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

29. AZPIKONTRATATZEA

Kontratistak hirugarren batzuekin hitzar dezake prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoari lotuz. Salbuetsi egiten dira, hala badagokio, **Karatularen 23. puntuan** adierazitako prestazioak.

Kontratistak Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduen jota hura egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa; eta adierazi beharko du prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen, azpikontratistaren edo horren legezko ordezkarien nortasunaz eta harremanetan jartzen datuez gainera. Halaber, behar adina justifikatu beharko du azpikontratistaren gaitasuna hura egikaritzeko, erreferentzia eginez dituen elementu teknikoei giza bitartekoei eta horien esperientziari. Gainera, egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluaren arabera.

Kontratista nagusiak Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi beharko dio informazio horrek duen edozein aldaketa kontratu nagusia egikaritzean, baita azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazioa ere.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu atala egiteko sailkapen egokia badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aldera baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, erakunde kontratatzailearekiko erantzukizun osoa, baldintza agiriei eta kontratuaren baldintzei zorrotz lotuta egikaritzeko; barne dela SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak.

Erakunde kontratatzaileak egin diren azpikontratuen berri izateak ez du eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun esklusiboan.

Azpikontratistei eta hornitzaileei ordainduko zaie, eta ordainketa horiek egiaztatuko dira SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

30. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Gainera, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du **Karatularen 24. puntuan** berariaz ohartarazten duenean aukera horren inguruan, puntu horretan jasotako termino eta baldintzetan.

Kontratuaren aldaketek ezingo dute berekin ekarri kontratuan jasota ez dauden unitateko prezio berriak ezartzea.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

31. HARRERA ETA BERME EPEA

Kontratua guztiz beteko du kontratistak prestazioa osorik egiten duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta erakunde kontratatzailearen adostasunarekin.

Harrera partzialetako bakoitzean, hala badagokio, eta harrera osoaren kasuan, erakunde kontratatzaileak zehaztuko du kontratistak egindako zerbitzua bat datorren hura egikaritzeko eta betetzeko ezarritako aginduekin. Hala badagokio, kontratatutako zerbitzuak egitea eskatuko zaio eta harreran hautemandako akatsak konpontzea.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, erakunde kontratatzaileak prestazioa baztertu dezake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Horretarako, 27. klausulan jasotakoa ez da alde batera utziko; nolanahi, erakunde kontratatzaileak

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, baita kalte-galeren ordainak ere, kontratutako prestazioak akatsez eginez gero eta/edo kontratuko baldintzetako edozein betetzen ez bada.

Karatularen 25. puntuan adierazten da berme epea.

Berme epe horretan egiaztatzen bada egindako lanetan akatsak daudela, Kontratazio Organoak eskubide osoa izango du kontratistari akatsak zuzen ditzan eskatzeko.

Berme epea amaitzean erakunde kontratatzaileak ez badu konponketarik egin edo klausula honetan adierazitako salaketarik egin, kontratistak ez du erantzukizunik edukiko egindako prestazioaren gainean.

32. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLren 208.2 artikuluan jasotako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari. Ondorio horietarako, artikulu hori berariaz aplikatzekotzat ezartzen da.

33. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua azkenduko da berori betetzeagatik nahiz ondoren arautzen denaren arabera hura suntsiaraztea erabakitzeagatik.

Kontratua suntsiarazteko kausak lirateke, erakunde kontratatzailearen borondatez:

a) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea.

b) Kontratista epeak betetzean berandutzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horiek halakotzat kalifikatu badira.

e) Prestazioa hasieran adostutako baldintzetan egikaritzeko ezintasuna, kontratua Agiri honetan xedatutakoaren arabera aldatu ezin bada.

f) Kontratua egikaritzean, kontratistak soldatak ez ordaintzea, parte hartzen ari diren langileei nahiz langile horientzat aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea, baita kontratua egikaritzean ere.

g) Oro har, kontratuko edozein betebehar ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan jasotakoaren arabera.

h) SPKLren 313. artikuluaren 1. atalean kontratua suntsiarazteko ezarritako kausak. Horiek berariaz aplikatzekoak izango dira eta honako hauek dira:

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

1. Zerbitzugintzarekin hasi aurretik kontratuari uko egitea edo, kontratazio organoari egotz dakizkiokeen kausen ondorioz, kontratuaren hasiera lau hilabete baino gehiagoz etetea —kontratuari hasiera emateko adierazitako datatik zenbatzen hasita—.

2. Zerbitzugintzari hasiera eman ondoren kontratuari uko egitea edo kontratua zortzi hilabetetik gora etetea, kontratazio organoak erabakita.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako kasurik badago, automatikoki suntsiaraziko da. Halakoetan, erakunde kontratatzaileak hartu duen erabakia fede emanez jakinarazi behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak erakunde kontratatzailearen esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak eskaintzeko ordura arte landu dituen dokumentu guztiak, eta kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, erakunde kontratatzaileak erabilitako eta kontratistari emandako agiriekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia erakunde kontratatzailearena izango da aurrerantzean.

Horrez gain, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, erakunde kontratatzaileak hura egikaritzen jarraitu ahal izatea.

Suntsiarazte kasu guztietan, benetan egin diren onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du kontratistak, hasiera batean.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik suntsiarazten bada, erakunde kontratatzailearen alde zorpetuko da **Karatularen 26. puntuan** jasotako zenbatekoa, kasuan-kasuan dagozkion kalte eta galeren ondoriozko edozein ordainez gain. Bi kantitateak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira eta soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.

Aurretik adierazitakoa gorabehera, berariaz aplikatuko da SPKLren 313. artikuluko 3. atala; hau da,

a) Karatula honen h.1 letran jasotako suntsiarazte kasuetan, kontratistak soilik hau jasotzeko eskubidea izango du: kontzeptu guztiengatik, kontratua adjudikatzeko prezioaren % 3ko kalte-ordaina soilik (BEZik gabe).

b) Karatula honen h.2 letran jasotako suntsiarazte kasuetan, kontratistak hau jasotzeko eskubidea izango du: kontzeptu guztiengatik, mozkin industrialaren kontzeptupean egin ez dituen horniduren kontratua adjudikatzeko prezioaren % 6 (BEZik gabe).

Azkenik, kontratua suntsiarazi ahal izango da erakunde kontratatzailea eta kontratista ados jarriz gero. Halakoetan, aldeen eskubideak haiek baliozkotasunek adostutakora egokituko dira.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

34. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da eta, prestaketari eta adjudikaziori dagokienez, hauek arautuko dute: Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta Preskripzio Teknikoen Agiriak. Horietan aurreikusita ez dagoen guztian, SPKLn horri buruz ezarritako arauek (adjudikazio boterea duten eta herri administrazio ez diren sektore publikoko erakundeen artean arautze bateratuari atxikitzen ez zaizkion kontratuetarako).

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, hauek arautuko dute kontratua: Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta Preskripzio Teknikoen Agiriak; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauek. Nolanahi ere, kontratuari aplikatzekoak izango zaizkio SPKLren 319. artikuluan ezarritako arauak "eraginei eta iraungitzeari" dagokienez.

Gainera, aplikatzekoak izango dira SPKL eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena; agiri honetan testu arauemaile horietara jotzen duen guztian.

35. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, adjudikatzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko; azken horien aurkaratzeak oinarri duenean SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, ulertzen bada aldaketa horrek beste adjudikazio baten objektu izan behar zuela.

Hala badagokio, errekurtsoa aurkeztuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLren 44. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Jurisdikzio ordena zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei eta kontratua suntsiarazteari dagokionez, salbuetsita klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu aldaketak.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Vivienda
Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

I. Eranskina. Abal eredua.

[……] erakundeak (kreditu erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFK [……] eta helbidea (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) [……] (e)an dituenak, eta haren izenean [……] (e)k (ahalordedunen izen-abizenak), dokumentu honen behealdean adierazitako ahalordea askiestetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak, honako honi ematen dio ABALA: [……] (r)i (abaldunaren izen-abizenak edo izen soziala), IFK [……] duenari, [……] €-ko zenbatekoaz, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako higiezinetako goragailuen mantentze eta kontserbazio zerbitzuen kontratuaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal emaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituela. Abala notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin modu solidarioan, esklusio onurari espresuki uko eginda, eta […](r)en lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da […](e)k berori kitatzea edo itzultzea baimentzen duen arte.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

II. eranskina. Adierazpenen notario aktaren eredua, eskatutako kaudimena egiaztatzeko eta/edo eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa betetzeko, lizitatzaileak asmoa duenean beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko.

[Oharra: soilik aurkeztu behar da, lizitatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu badu, eta, eskatutako kaudimena duela eta/edo kontratuari eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa duela egiaztatzeko, asmoa duenean beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko. ***Hirugarren erakundeak osatu behar du]***

[…] jaunak/andreak, NAN […] duenak, […] enpresaren (IFK: […]) legezko ordezkari gisa, adierazi du ezagutzen dituela [.....] (enpresa lizitatzailearen izena) lizitatzaileak lehiatuko duen kontratatzeko lizitazioaren baldintzak, eta adjudikaziodun suertatuz gero, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako higiezinetako goragailuen mantentze eta kontserbazio zerbitzuen kontratua egikaritzeko behar diren baliabideak lizitatzaile horren esku jartzeko borondate ezeztaezina adierazten duela, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa espresuki onartuta. Hori aldatu edo onartzea […] erakundeak baimendu beharko du espresuki.

Idatzi hori aurkeztuz gero, […] erakundeak konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaile hori adjudikaziodun suertatzen bada.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Vivienda
Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

III. eranskina. Europako Kontratazio Agiri Bakarra.

Europako Kontratazio Agiri Bakarra honako helbide elektroniko honetan eskura daitekeen ereduaren arabera bete beharko da:

https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

IV. eranskina. Giza bitartekoak eta/edo bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN dituenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NAN edo IFZ dituen […](r)en ordezkari gisa, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako higiezinetako goragailuen mantentze eta kontserbazio zerbitzuen lizitazioa, eta honen bidez

ADIERAZTEN DU:

Adjudikaziodun suertatuz gero, kontratazioa zuzentzen duen Karatularen 10. puntuan eskatzen diren gutxieneko giza bitartekoak eta/edo bitarteko materialak atxikiko dizkiola kontratua egikaritzeari.

Eta hala jasoarazita gera dadin, bidezko ondorioetarako, giza bitartekoak atxikitzeko konpromiso hau egin du, […](e)n, […](e)ko […]aren […](e)an.

[Sinadura]

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

V. eranskina. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa adieraztea.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN dituenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NAN edo IFZ dituen […](r)en ordezkari gisa, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako higiezinetako goragailuen mantentze eta kontserbazio zerbitzuen lizitazioa, eta honen bidez […](e)k lizitazio horren ondorioz egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko bide lehenetsi izendatu du hau (*):

€ **Posta elektronikoa.**

€ **Posta ziurtatua.**

€ **Faxa.**

(*) Adierazi hautatutako bidea.

Nolanahi ere, ondoren adierazitako datuak zehaztuko dira jakinarazpenak egiteko:

Posta elektronikoko helbidea: …….

Posta helbidea: ……..

Fax zk.: ……..

Harremanetarako telefonoak: ……..

[Oharra: Jakinarazpenak ahalik eta arinen egiteko, lizitatzailearen posta elektronikoari lehentasuna ematea gomendatzen dugu. Bide hori guztiz baliozkoa izango da, jakinarazpenen ondorioetarako, lizitatzaileak berak hautatua delako. Hala ere, beste bide bat hauta daiteke lehentasunezkotzat. Ez bada aukerarik egiten, posta ziurtatu bidez egingo dira jakinarazpenak, adierazitako helbidean.]

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Vivienda
Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

VI. eranskina. Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

A eredua. Sortarako/sortetarako proposamena
Banakako eranskin bat aurkeztuko da eskaintza aurkezten den sorta bakoitzerako

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN dituenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NAN edo IFZ dituen […](r)en ordezkari gisa, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako higiezinetako goragailuen mantentze eta kontserbazio zerbitzuen kontrataziorako prozedura ireki bidezko lizitazioa, eta honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. Konpromisoa hartzen duela Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako higiezinetako goragailuen mantentze eta kontserbazio zerbitzuen kontratua egikaritzeko, ….. sorta, honako baldintza hauen arabera:

   X. SORTA *(sorta adierazi)*

   - Arrisku orotako mantentze integralaren urteko zenbatekoa: …….. (BEZa barne), honela banakatuta:
     …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
     …….. euro (BEZa).

   - Mantentzeko teknikariaren (1. mailako ofiziala) orduko prezioa, irteera barne, honela banakatuta:
     Ordua (24 ordu):
     - …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
     - …….. euro (BEZa).

   - Mantentze integralaren barnean hartzen ez diren lanak egikaritzeko materialen PSParen gaineko deskontua: % ……

   - Gorabehera edo matxurei erantzuteko epea: …… minutu
     (Agiri Teknikoan ezarritako gehieneko denbora gainditu gabe)

2. Ezagutzen duela kontratua zuzentzen duen kontratuko dokumentazioa, eta berori osorik bere gain hartu eta onartutzat hartzen duela berariaz.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Vivienda
Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

VI. eranskina. Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

B eredua. Eskaintza integratzailea
*(*soilik eskaintza integratzailea aurkezten bada betetzeko)*

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN dituenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NAN edo IFZ dituen […](r)en ordezkari gisa, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako higiezinetako goragailuen mantentze eta kontserbazio zerbitzuen kontrataziorako prozedura ireki bidezko lizitazioa, eta honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. Konpromisoa hartzen duela Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzako higiezinetako goragailuen mantentze eta kontserbazio zerbitzuen kontratua egikaritzeko, (**1. sorta + 2. + 3. sorta**), honako baldintza hauen arabera:

- Arrisku orotako mantentze integralaren urteko zenbatekoa: …….. (BEZa barne), honela banakatuta:
  …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
  …….. euro (BEZa).

- Mantentzeko teknikariaren (1. mailako ofiziala) orduko prezioa, irteera barne, honela banakatuta:

Ordua (24 ordu):

- …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
- …….. euro (BEZa).

- Mantentze integralaren barnean hartzen ez diren lanak egikaritzeko materialen PSParen gaineko deskontua: % ……

- Gorabehera edo matxurei erantzuteko epea: …… minutu.
  (Agiri Teknikoan ezarritako gehieneko denbora gainditu gabe)

Sortak honela banakatzen dira:

1. SORTA

- Arrisku orotako mantentze integralaren urteko zenbatekoa: …….. (BEZa barne), honela banakatuta:
  …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
  …….. euro (BEZa).

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

- Mantentzeko teknikariaren (1. mailako ofiziala) orduko prezioa, irteera barne, honela banakatuta:

Ordua (24 ordu):

- …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
- …….. euro (BEZa).

- Mantentze integralaren barnean hartzen ez diren lanak egikaritzeko materialen PSParen gaineko deskontua: % ……

- Gorabehera edo matxurei erantzuteko epea: …… minutu

(Agiri Teknikoan ezarritako gehieneko denbora gainditu gabe)

2. SORTA

- Arrisku orotako mantentze integralaren urteko zenbatekoa: …….. (BEZa barne), honela banakatuta:

…….. euro (BEZik gabeko prezioa).
…….. euro (BEZa).

- Mantentzeko teknikariaren (1. mailako ofiziala) orduko prezioa, irteera barne, honela banakatuta:

Ordua (24 ordu):

- …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
- …….. euro (BEZa).

- Mantentze integralaren barnean hartzen ez diren lanak egikaritzeko materialen PSParen gaineko deskontua: % ……

- Gorabehera edo matxurei erantzuteko epea: …… minutu.

(Agiri Teknikoan ezarritako gehieneko denbora gainditu gabe)

3. SORTA

- Arrisku orotako mantentze integralaren urteko zenbatekoa: …….. (BEZa barne), honela banakatuta:

…….. euro (BEZik gabeko prezioa).
…….. euro (BEZa).

- Mantentzeko teknikariaren (1. mailako ofiziala) orduko prezioa, irteera barne, honela banakatuta:

Ordua (24 ordu):

- …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
- …….. euro (BEZa).

- Mantentze integralaren barnean hartzen ez diren lanak egikaritzeko materialen PSParen gaineko deskontua: % ……

- Gorabehera edo matxurei erantzuteko epea: …… minutu.

(Agiri Teknikoan ezarritako gehieneko denbora gainditu gabe)

3. Ezagutzen duela kontratua zuzentzen duen kontratuko dokumentazioa, eta berori osorik bere gain hartu eta onartutzat hartzen duela berariaz.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]